

ANCHETA, OLOGARROA¹ ETA IGARABA

Ancheta ur gañean
 loak arturikan,
 ologarroak eldu
 zion zankotikan;
 eta chilyoz zala
 ari preso zana,
 igarabak lasterka
 joanik beragana,
 tiraka zuben kendu
 andik bazterrera,
 eta legorrera an
 baitzuben atera.
 Ikusi zubenean
 ologarroa an,
 anchetak itsatsiya
 zeukala zankoan,
 esan zion: —¿zer dek or?
 ¿zer darabillek ik?—
 zeñi eranzun zion,
 —darabiltana nik,
 da sayatzea oni
 on egin naiean;
 ikusirikan lotan
 uraren gañean,
 putre zarren bat ontaz

(1) Pulpo.

jabetu ez dedin,
zankotikan tiratzen
nion esna zedin.
—Ez jauna, esan zion
anchetak orduban,
ni berekin urpera
sartu nai ninduban:
eta berriz ez dedin
kontu au gertatu,
bearluke chit estu
zatartzar au artu:
—bai kastigatuko det
paltatu dulako,
esan zion, lan char au
egindubelako;
bañan zuk ere lo an
dezulako egin,
beste orrenbeste det
egingo zurekin;
eta biyak itorik
bertan segiruban,
biyakin otordu on
bi egin zituban.

.
Tranpiyan dabiliena
iñor galdu nayan,
bera arki liteke
galdutzeko gayan:
bai ere zer gaitz egin
nai dion besteri,
gaitz bera leikioke
gertatu berari.
